

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

VILLABONAKO UDALA

Iragarkia

Villabonako Alkateak 2020ko azaroaren 25ean 2020/636 zenbakidun dekretuan honako erabakia hartu du:

Lehen. Covid-19 coronavirusaren egoera eta bilakaerak eragindako egoera ekonomikoa arintzeko eta, ahal den neurrian, diru-sarreraren galera arintzeko, ostalarientzako ezohiko dirulaguntzen deialdia onartzea.

Deialdi hori Ebazpen honen eranskin gisa jaso da.

Deialdia eta laguntza eskatzeko beharrezkoak diren gainontzeko dokumentuak Udalaren web orrian (www.villabona.eus) dau de erakusgai.

Bigarrena. Deialdi horri aurre egiteko 2020. ekitaldiko udal aurrekontuan 30.000 euroko gastua baimentzea, Villabonako Udaleko aurrekontuaren baitan.

1.1000.471.311.00.01.2020 Covid-19-merkataritza eta ostalaritza.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, deialdia argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

Jendeak jakin dezan argitaratzen da.

Villabona, 2020ko azaroaren 25a.—Alkatea. (6279)

ERANSKINA

Covid-19 Coronavirusaren bilakaerak eragindako galderak arintzeko ostalarientzako ezohiko dirulaguntza II. deialdia.

1. Xedea eta lagun daitekeen epealdia.

Dirulaguntza deialdi honen xedea Covid-19 coronavirusaren bilakaerak eragindako egoera ekonomikoa arintzea da eta, ahal den neurrian, ostalariei diru-sarreraren galera arintzea da.

Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko dirulaguntzak emango dira.

Onartutako laguntzak larrialdi egoerak sortutako gastuari zati batean aurre egitera bideratuko dira.

2. Dirulaguntza.

Dirulaguntzaren zenbatekoa 600 €-koa izango da etendura-hilabete bakoitzeko, jardueren etetea erabatekoa denean (Oinarrietako 3.b) i) ataleko epigrafeak).

Dirulaguntzaren zenbatekoa 300 €-koa izango da etendura-hilabete bakoitzeko, jardueren etetea partziala denean (Oinarrietako 3.b) ii) ataleko epigrafea).

Establezimenduaren titularrak jarduerari lotutako lokala errentan baldin badu dirulaguntzaren zenbatekoak 200 €/hileko gehigarri bat izango du.

AYUNTAMIENTO DE VILLABONA

Anuncio

El Alcalde de Villabona ha adoptado el siguiente acuerdo en el Decreto 2020/636, de 25 de noviembre de 2020:

Primero. Convocar subvenciones extraordinarias a hosteleros para paliar la situación económica derivada de la situación y evolución del Covid-19 coronavirus y paliar, en la medida de lo posible, la pérdida de ingresos.

Dicha convocatoria se recoge como anexo a la presente Resolución.

La convocatoria y demás documentos necesarios para solicitar la ayuda están disponibles en la página web del Ayuntamiento (www.villabona.eus).

Segundo. Autorizar un gasto de 30.000 euros en el presupuesto municipal del ejercicio 2020 para hacer frente a esta convocatoria, dentro del presupuesto del Ayuntamiento de Villabona.

1.1000.471.311.00.01.2020 Covid-19-comercio y hostelería.

Tercero. Contra el presente acuerdo podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses. Los plazos se computarán, en todo caso, desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria.

Lo que se publica para general conocimiento.

Villabona, a 25 de noviembre de 2020.—El alcalde. (6279)

ANEXO

II convocatoria de ayudas extraordinarias a hosteleros para paliar las pérdidas derivadas de la evolución del Coronavirus Covid-19.

1. Objeto y periodo subvencionable.

El objeto de la presente convocatoria de subvenciones es paliar la situación económica derivada de la evolución del Covid-19 Coronavirus y en la medida de lo posible, paliar la pérdida de ingresos de los hosteleros.

Para ello se concederán subvenciones de carácter no periódico.

Las ayudas aprobadas se destinarán a hacer frente a parte del gasto generado por la situación de emergencia.

2. Subvención.

El importe de la subvención será de 600 € al mes de suspensión, cuando la suspensión de la actividad sea total (epígrafes del apartado 3.b) i) de las Bases).

El importe de la subvención será de 300 € al mes de suspensión cuando la suspensión de la actividad sea parcial (epígrafe del apartado 3.b) ii) de las Bases).

El importe de la subvención se incrementará en 200 € al mes si el titular del establecimiento tiene arrendado el local vinculado a la actividad.

Dirulaguntzak, laguntza honetarako aurrekontua amaitu arte emango dira. Dirulaguntza honetara bideratutako aurrekontua ez bada nahikoa eskaera guztiei erantzuteko, modu proportzionalan banatuko da aurkeztutako eskaera-kopuruaren arabera.

Ostalaritzako establezimendu bakoitzeko dirulaguntza bakarra emango da.

3. *Onuradunak.*

Laguntza honen onuradun izan ahalko dira 2020ko azaroaren 6an Villabonan ostalaritza lokala irekita eta martxan duten pertsona fisiko eta juridikoak.

Honez gain baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako batere debekurik ez izatea.

b) Villabonan 2020ko azaroaren 6an Jarduera Ekonomikoaren Zergan alta emanda egotea, honako multzoetako batean:

I. Erabateko etendura:

– Lehen sekzioa.

6. saila: Merkataritza, jatetxeak eta ostalaritza, konponketak. Honako epígrafe hauetan:

671: Jantoki-zerbitzuak.

672: Kafetegietan.

673: Janaridun eta janari gabeko kafetegi eta tabernetan.

674: Jantoki, kafetegi eta kafetegi-tabernetako zerbitzu berezia.

II. Etendura partziala:

– Lehen sekzioa.

6. saila: Merkataritza, jatetxeak eta ostalaritza, konponketak. Honako epígrafe honetan:

6441: Ogi, gozogintza, eta antzekoen eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.

c) Villabonako Udalarekin zorrik ez edukitzea.

Aurreko apartatuko betekizunak laguntzen iraunaldiak dirau bitartean bete beharko dira, bai eta, gutxienez, egoera hori amaitu ondoko lauhilabeteetan ere.

4. *Dirulaguntza-iraunaldia.*

Dirulaguntzaren iraunaldia Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuan oinarritutako erabateko itxierarekin hasiko da (2020ko azaroaren 7an) eta dagokion autoridadeak erabateko-itxiera jasaten duten jarduerak ahalbidetzen dituenean amaituko da.

5. *Dirulaguntzaren ordainketa.*

Dirulaguntzak beraiek xede duten helburua egoera egiaztatu bezain pronto ordainduko dira, hilabeteka.

Dirulaguntzak dirulaguntza honetarako aurrekontua amaitu arte emango dira.

Dirulaguntza honetara bideratutako aurrekontua, ez bada nahikoa, eskaera guztiei erantzuteko modu proportzionalan banatuko da aurkeztutako eskaera-kopuruaren arabera.

6. *Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak egiteko epea.*

Eskaerak jardueraren titularrak egingo ditu zuzenean, edo haren ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatzen duen edozein pertsonak.

Dirulaguntza eskaera Villabonako Udaleko erregistro elektronikoa bidez edo aurreko erregistroan egingo da. Eskaeran adieraziko da jardueraren titularrak dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela zinpeko deklarazioaren bidez.

Udalak ofizios egiaztatuko du entitate onuraduna betebehartean egunean dagoela Udalarekin eta 2020ko azaroaren 6an

Las subvenciones se concederán hasta la finalización del presupuesto destinado a esta ayuda. En el caso de que el presupuesto destinado a esta subvención no fuera suficiente para atender todas las solicitudes, se distribuirá proporcionalmente en función del número de solicitudes presentadas.

Se concederá una única subvención por establecimiento hostelero.

3. *Beneficiarios.*

Podrán ser beneficiarias de esta ayuda las personas físicas o jurídicas, con local de hostelería abierto en Villabona y en funcionamiento a fecha de 6 de noviembre de 2020.

Además deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) No incurrir en ninguna de las prohibiciones establecidas en el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.

b) Estar dado de alta en el IAE en Villabona a 6 de noviembre de 2020, tributando en alguno de los siguientes grupos:

I. En caso de suspensión total:

– Sección primera.

Sección 6.ª: Comercio, restauración y hostelería, reparaciones. En los siguientes epígrafes:

671: Servicios en restaurantes.

672: En cafeterías.

673: De cafés y bares, con y sin comida.

674: Servicios especiales de restaurante, cafetería y café-bar.

II. En caso de suspensión parcial:

– Sección primera.

Sección 6.ª: Comercio, restauración y hostelería, reparaciones. En el siguiente epígrafe:

6441: Comercio al por menor de pan, repostería y similares, leche y productos lácteos.

c) No tener deudas con el Ayuntamiento de Villabona.

Los requisitos del apartado anterior deberán cumplirse durante el periodo de vigencia de las ayudas y al menos, durante los cuatro meses siguientes a la finalización de dicha situación.

4. *Duración de la subvención.*

La duración de la subvención comenzará con el cierre total basado en el Decreto del Lehendakari 38/2020, de 6 de noviembre (7 de noviembre de 2020) y finalizará cuando la autoridad correspondiente permita la apertura de la actividad suspendida.

5. *Pago de la subvención.*

El abono de las subvenciones se realizará en el momento en que se acredite la situación de destino de las mismas, por meses.

Las subvenciones se concederán hasta la finalización del presupuesto destinado a esta subvención.

El presupuesto destinado a esta subvención en caso de resultar insuficiente, se distribuirá proporcionalmente en función del número de solicitudes presentadas.

6. *Documentación a presentar y plazo de solicitud.*

Las solicitudes serán formuladas directamente por el titular de la actividad o por cualquier persona que acredite su representación por cualquier medio válido en derecho.

La solicitud de subvención se realizará mediante registro electrónico o presencial del Ayuntamiento de Villabona, indicando mediante declaración jurada que el establecimiento reúne los requisitos para participar en esta iniciativa.

El Ayuntamiento comprobará de oficio que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones con el Ayun-

Villabonako JEZen alta emanda dagoela deialdi honetan adierazten diren zergaren barruko taldeetan.

6.1. Eskaerarekin batera, aurkeztu beharko dira:

a) Eskaera egiten duenaren nortasun juridikoa egiaztatze dokumentuak:

Pertsona fisikoak: NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.

Pertsona juridikoak: eskritura eta erakundearen edo entitatearen eraketa jasotzen duen dokumentua eta Estatutuak, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak eta identifikazio fiskalaren txartela.

b) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko agiria eta ordezkariaren dokumentazio-egiaztapena. Egiaztapen hori zuzenbidean bidezkoa den edozein modutan egin daiteke.

c) Jarduerari atxikitutako lokala errentan egonez gero, errentamendu-kontratua eta ordaindutako azken ordainagiria.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizun osoa.

Udalak onartutako, Covid 19ko galerak arintzeko dirulaguntzen 1. deialdian (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2020ko maiatzaren 7an argitaratua) dokumentazio osoa aurkeztu zuten osatariak ez dituzte eskariarekin batera a) eta b) puntuak ezarritako agiriak aurkeztu beharko.

6.2. Eskariak aurkezteko epea.

Eskabideak ekimen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu beharko dira, 6 laneguneko epean.

6.3. Gauzatzea eta proposamena.

Udalaren Kontuhartzaitzako sailak dirulaguntzen Kudeaketarako lanak egingo ditu, eta ebazpen-proposamena prestatuko du.

6.4. Ebazpena: Alkatetzak.

Prozeduraren ebazpena mezu elektronikoa bidez jakinaraziko da ogasuna@villabona.eus.-etik, emandako dirulaguntzak Udalaren webgunean argitaratzeko aukera baztertu gabe.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburuan edo xedean bat datozen beste administrazio publikok edo entitate publikok zein pribatuk emandako beste laguntza batzuekin.

Emandako dirulaguntzaren ordainketa bakoitza banku-transferentzia bidez egingo da, erakunde edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

7. Araudi ezargaria.

Bere oinarri arautzaileetan ezarrikoaz gain, laguntza hauek Dirulaguntzen Araudi Orokorra arautzen duena zaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautuko dituzte.

tamiento y que el 6 de noviembre de 2020 está dado de alta en el IAE de Villabona en los grupos incluidos en el Impuesto que se indican en esta convocatoria.

6.1. La solicitud deberá ir acompañada de:

a) Documentos acreditativos de la personalidad jurídica del solicitante:

Personas físicas: DNI o documento equivalente.

Personas jurídicas: escritura y documento en el que conste la constitución de la entidad y los Estatutos debidamente inscritos en el Registro Mercantil o en el que corresponda. Tarjeta de identificación fiscal.

b) En caso de representación legal, DNI o documento equivalente del representante legal y acreditación documental de la misma. La acreditación podrá realizarse por cualquier medio válido en derecho.

c) En caso de arrendamiento del local afecto a la actividad, contrato de arrendamiento y último recibo abonado.

El beneficiario asume la plena responsabilidad sobre la veracidad de todas las declaraciones responsables realizadas y del resto de la documentación aportada.

Los hosteleros que hubieran presentado la documentación completa en la 1.ª convocatoria de ayudas para paliar las pérdidas del Covid 19 aprobadas por el Ayuntamiento, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 7 de mayo de 2020, no deberán acompañar a la solicitud la documentación establecida en los puntos a) y b).

6.2. Plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes deberán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de esta iniciativa en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el plazo de 6 días hábiles.

6.3. Ejecución y propuesta.

El departamento de Intervención del Ayuntamiento realizará las tareas de gestión de las subvenciones y elaborará la propuesta de resolución.

6.4. Resolución: Alcaldía.

La resolución del procedimiento se notificará por correo electrónico desde ogasuna@villabona.eus, sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento.

Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

El pago de la subvención se realizará mediante transferencia bancaria en la cuenta corriente indicada por la entidad o persona beneficiaria.

7. Normativa aplicable.

Además de lo establecido en sus bases reguladoras, estas ayudas se regirán por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, reguladora del Reglamento General de Subvenciones.